

232. ALDIZKARIA - 2015eko azaroaren 19a

ANTSOAIN

Udalaren diru-laguntzen deialdi publikoa, 2015ean kultur, kirol eta besta jarduerak egiteko

Antsoaingo Udalaren Gobernu Batzarrak, 2015eko urriaren 30ean egin bilkuran, erabaki zuen onestea 2015ean kultur, kirol eta besta jarduerak egiteko diru-laguntzen deialdi publikoaren oinarriak.

Oinarrien xedea.–Deialdi honek xedea du diru-laguntzak emateko araubidea ezartzea, Antsoainen diren talde guztien ekintza eta jarduerak sustatu eta sostengatzeko, 2015ean kultur, kirol eta besta jarduerak egiten badituzte.

Laguntza emanen zaie xede hauek betetzen dituzten jarduerari:

–Kultur eta besta arloan:

- Kultur adierazpenaren modu ugariak bultzatzea (kultura eta elkartasuna, kultura eta generoa, kultura eta zientzia, kultura eta ekonomia, kultura eta euskal kultur tradizioa, kultura eta euskara, kultura eta natura) ohiko moduekin batera (musika, arte eszenikoak, arte plastikoak eta ikusizkoak, argazkigintza, herriko bestak eta ospakizun herrikoiak, eta gizarte-kultur sustapenerako programak).
- Antsoaindar guztiei kulturarako eta partaidetza kulturalerako ateak irekitzea, informazioaren eta ezagutzaren teknologia berriak barne.
- Berezko kultur balioak sustatzea eta nortasun kolektiboa errespetatzea eta eraikitzea, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasun printzipioan oinarrituz, gizarte talde, adin, arraza eta abarren barne desberdintasunak onartzetik abiatuta.
- Elkartegintza eta herritarren partaidetza sustatzea, gizarte eta kultur ehun aberatsa sortzea eta sektore baztertuen kultura bultzatzea.
- Kulturaren zeharkotasuna agerian jartzen duten proiektuen alde egitea.
- Berdintasunean oinarritutako sormenezko jarduerak, solidarioak, jasangarriak eta integratzaileak sustatzea, bai eta herritarren garapen pertsonala eta soziala bultzatuko duten bestelakoak ere.
- Herritarren parte-hartze parekidea handitu eta festak norberarenak direla sentitzeko jarduerak sustatzea, populazio sektore guztietan.

–Kirol arloan:

- Kirolaren praktika eta kultura fisikoaren garapena Antsoaingo biztanle guztiei zabaltzea, berdintasun baldintzetan eta batere bazterkeriarik gabe.
- Oinarritzko kirola eta jostetarako kirola bereziki bultzatzea, bai emakumeen artekoa bai gizonen artekoa.
- Kirol arloko elkartegintza sustatzea, kirol praktikaren zabalkuntzaren bizkarrezurra izan dadin.
- Antsoaingo kirola bultzatzea, eta orobat herrialde, nazio edo nazioarte mailan itzal gehien duten antsoaindar kirolariak. Kirolean emakumeak ikustaraztea, bai oinarritzko kirolean bai itzal gehien duen kirolean ere.
- Udalaren kirol instalazioen erabilera arrazionalizatzea eta ahalik eta hobea bilakatzea.
- Kirolaren praktika osasungarritasun eta segurtasun baldintza egokietan egin dadin ahalegintzea.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira honako hauek:

- Laguntza jarduerak.
- Jarduera gastronomikoak edo antzekoak, kultur interes berezia ikusten ez bazaie, behintzat.
- Antsoaindik kanpora egiten diren jarduerak.
- Elkarlearen edo taldearen gastu orokorrak edo mantenimendu gastuak (alokairua, telefonoa, argia, webgunea mantentzea etab.).

Gehienez ere aurreikusitako zenbatekoa: 17.250,00 euro, Antsoaingo Udalaren 2015eko aurrekontuaren kontu-sail honen kontura finantzatzeko direnak: 1-4630-48209.

Oinarriak hartzeko tokia: Antsoingo Udalaren Erregistro Orokorra (Udaletxeko plaza, 1, 1. solairua) edo www.ansoain.es web orrian.

Eskabideen aurkezpena. –Eskabideak aurkeztuko dira Udalaren Erregistro Orokorrean edo www.ansoain.es, “egoitza elektronikoa” leihoan.

Eskaerak aurkezteko epea hamabost egun baliadunekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Antsoainen, 2015eko urriaren 30ean.–Alkatea, Ander Andoni Oroz Casimiro.

Iragarkiaren kodea: L1514703